

Mitxelena-ren idazki bat irakurtzen du Haritschelhar jaunak, bere iritzia agertuaz. Hitz-en aldaeraz ihardun da batez ere, baina ezta hartu ezertariko erabakirik.

Ohi den otoitzarekin bukatu batzarra.

Euskaltzainburua	Idazkaria
LUIS VILLASANTE	JUAN SAN MARTIN

1974 - V - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974 maiatzaren 24an, arratsaldeko lau-
retan, bildu dira: L. Villasante buru. A. Arrue, J.M. Lojendio eta J.M. Satrustegi
jaun euskaltzainak; S. Garmendia. J. Goikoetxea Maiza, J.M. Lekuona, J.L. Lizun-
dia eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Lafitte, Larza-
bal, Mitxelena, eta Zavala euskaltzain jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko batzar agiria onhartu da.

a) **HAR-EMANAK:**

Madrid-etik, Manuel Fernández-Galiano jaunaren gutuna, **VI Congreso In-
ternacional de Estudios Clásicos** biltzarretara dei eginaz. Biltzar hoiiek aurtengo irai-
lean 2tik 6ra izango dira Nazioarteko Etudes Classiques erakundeak antolatua
U.N.E.S.C.O.-ren babespean. Luis Mitxelena izendatzen da Euskaltzaindiaren or-
dezkarri, biltzar horietara joan dadin.

A. Arrue jaunak Donostiako alkate jaunagandik hartu duen gutun baten
berri ematen du, Euskaltzaindiari aurtengo laguntzaz 100.000 pezeta ematea erabaki
dutela esanez.

Lankideen Aurrezkiak (Caja Laboral Popular) delakoak, bere aldetik, aur-
tengo laguntzaz 100.000 pezeta.

Donostiako Udaletxeari eta Lankideen Aurrezki etxeari eskerrak ematea
erabakitzen da.

Idazkariak aditzera ematen du Alemaniako Koloniako telebistakoen bizita izan dugula Bilboko etxean eta Euskaltzaindiaren historia eta ekintza lanen berri eman zaiela.

Datorren igandean, hil honen 26an, Azkoitiko Insausti jauregian izango den III Festival Inter-escolar de Danzas-erako deira Joan Goikoetxea Maiza izendatzen da Euskaltzaindiaren ordezkari.

HARTU DIREN LIBURUAK: A. Plazido Mujika euskaltzain laguntzaile jaunak bere **Diccionario Castellano - Vasco** (Bigarren argitalpena) eskaintzen du; Gero argitaldaria **“Orixe”**ren **Santa Kruz apaiza** eta G. Garate-ren **Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg. Leninen bizitza**; E.K.A.k bidalia Leizaola-tar J.M.-ren **“Jainkoaren Billa” gutuna zer da?** J.B. Merino Urrutia jaunak **“Vocabulario de la cuenca del Rio Oja”**, **Berceo** aldizkariko separata; Gipuzkoako Caja de Ahorros Provincial-ak honako liburu hauek, A. Cillán apalategui-ren **La Foralidad Guipuzkoana**, M. Lekuona-ren **La parroquia de San Pedro de Lasarte**, I. Linaresoren **Caserios de Guipúzcoa** eta I. Barandiaran-en **Guipúzcoa en la Edad Antigua**. Guziera zorionak eta eskerrak ematea erabakitzen da.

b) GOIZEKO BILKURA BEREZIAREN BERRI:

Burugoak ematen du goizean euskaltzainak izan duten bilkura bereziaren berri. Zortzi euskaltzain oso bildu dira eta beste zenbaiten gutunak jaso dira, botoa edo poderioa emanez euskaltzain berria izendatzeko. Bi izen aurkeztu dira eta botoara jo. 15 euskaltzainen botoak jaso dira eta Emile Larre **“Herria”** astekariaren zuzendari jauna izendatu da. Larre jauna 1926an Baigorri sortua da, Aiherrako erretora, **“Sokorri”** izen-ordearekin idatzi du **Gaste** hilabetekarian, Bertsolarien gidari eta eskolatzale, Liturgia euskaratze lan guztietan parte hartua, oraintsu zenbait lagunekin Testamentu berriko itzulpen berri bat egin du, astero idazten du **“Herria”**n, kantika berri egile eta bertsolaria da. Arautegiaren arabera aurkeztua zen.

Bestalde Euskaltzaindiko burugoak aurkezturik, J. Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain laguntzaile jauna, Errioxako euskara zaharrari buruz eginak dituen estudioak aintzat harturik, Euskaltzaindiari zenbait aldiz eman dizkion laguntzagatik, eta ekainaren 15ean San Millán de la Cogolla-n egingo dugun bilera goan dutelarik, euskaltzain ohorezko izendatzea erabaki da.

Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-en, XIX (1973), 95 zenbakiaren 147/153 orrialdeetan A. Bonifacio Ataun jaunaren hitzaldi bat agertu

da, Euskaltzaindiko erabagieri buruzkoan zenbait uste oker agertzen dituen, eta Boletin berari argitasunak ematea erabaki da.

d) URDIAINGO ZIZEN IZENAK:

Jose Maria Satrustegi euskaltzain jaunak irakurri du Urdainen erabiltzen diren ziza izenen txostena. "Perretxiku" izenik ez omen da erabiltzen Urdiainen, Zizak eta Ointoak bezala erabiltzen dute izen orokorra. Herriko zaharregandik jasotako izenen klasifikazioa R. Lotina Benguria eta T. Aranzadi-ren lanetan oiharritua du. Hogeitabost izenen xehetasunak ematen ditu, zientzia izenekin batean. R. Lotina "La Gran Enciclopedia Vasca"ko lanaren egileak dionez, ez omen du euskal Herrian ziza hauen izenik arkitu: **Lengua de Vaca, la Platera** eta **la Pardilla**-rekin. Baina, Urdiainen, **La Platera**, Clitocybe geopatra, "Urriziza zuria" da; eta **La Pardilla**, Clitocybe nebularis, "Urriziza beltza".

e) TXIRRITA ETA BASARRI: MINTZALDI BATEN ERANSKUNA:

Juan Maria Lekuonaren txostena, Txirrita eta Basarri bertsolarien arteko jorak aztertuz. Lehenengo, orain arte kulturaz eta arte-estetikaz erabili diren metodologiak ikertzen ditu, lehenagoko denboretatik gaurkora nabaitzen diren aldakuntzak adieraziaz eta elkarren arteko diferentziak agertuz. Txirritak berezko herritasuna zuen iturri bakarra, eta Basarrik Pello Mari Otaño bere maisu eredugarritzat, Kepa Enbeitagandik zerbait badu ere. Bi bertsolariok, bi eskola desberdinen ordezkariatzat jotzen ditu. Eta gainerako xehetasun jakingarri askoren argia emanaz mintzatu da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN